IPARRALDEKO ORKESTRA ORCHESTRE DU PAYS BASQUE

le trinquet – MODERNE –

2026ko azaroaren 2a

# *« XALBADORRI OMENALDIA »*
# Kantariak, poetak, bertsolariak eta dantzariak biltzen dituen sorkuntza berria

***Ostiralarekin, azaroaren 27an, 20:00etan, Baionako Trinketa Modernoan***
***Larunbatarekin, azaroaren 28an, 20:00etan, Urepeleko elizan***



©Baionako Euskal Museoa eta Baionako Historiaren bilduma.

**Xalbador duela berrogeita hamar urte zendu zen Urepelen, bere sorterrian. Horren karietara, Orchestre du Pays Basque - Iparraldeko Orkestrak omenaldi-kontzertu bat sortuko du, Philippe de Ezcurraren zuzendaritza artistikoaren pean, hemen « Euskal Herriko Rimbaud » izengoitiz ezagutzen den poetari eskainia dena.**
**Gau berezi honek bertsolariak bilduko ditu, Amets Arzallus Antia, Joanes Illarregi eta Elixabet Etchandi, kantariak, Aire Ahizpak, Ekhi Lambert, Maialen Errotabehere, Pier-Paul Berzaitz eta Mixel Etxekopar, baita Maurice Ravel Iparraldeko Kontserbatorioko Zabala moduluko dantzariak ere bai. Txalapartariak Paxkalin Chabagno eta Paxkal Indo izanen dira, txistularia Ekain Cachenant eta Iparraldeko Orkestrako musikariak (harpa, hari-laukotea, kontrabaxua) gehituko zaizkie taldeari.**
**Astebeteko egonaldi eta sorkuntza-lanaren ondoren, kontzertua 2026ko azaroaren 27an, ostiralarekin, aurkeztuko da Baionako Trinket Modernoan, eta ondoren azaroaren 28an, larunbatarekin, Urepelen. Erreserbak linean eskuragarri www.ospb.eus.**

**Begi bistakoa eta beharrezkoa den proiektua**

Orkestraren eginkizunetako bat, bere lurraldean errotzea da, ez bakarrik geografiaren aldetik, baita bere kulturan, identitatean, sorkuntzan eta ondarean ere bai. Duela hainbat denboraldi, musika tradizionalen inguruko memento nagusi bat programatzen eta sortzen du orkestrak. Joanden urteko denboraldian bezala, « *Emakumende* » lanarekin, zeinek lurraldeko emazteak omendu zituen kantuen, lekutotsaun eta artxiboen bitartez. Denboraldi berri honetan, Xalbadorren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrenean omenaldia egitea begi bistakoa bezala agertu da.
Sorkuntza honetan, Xalbadorrekin lotutako adierazpide guztiak bildu dira: bertsolaritza, kantua, musika eta dantza. Zuzendaritza artistikoaz arduratzen den Philippe de Ezcurrak poetaren hainbat testu kantuz jantzi ditu eta konposizio berriak prestatu ditu.
Bertsua da omenaldi honen bihotza. Unean bertan inprobisatzeko artea ezohiko intentsitatekoa da, eta gonbidatutako bertsolariek, Xalbadorrekiko miresmen handiz, ekitaldirako bertso bakarrak eskaintzeko gogotxu heldu dira. Maurice Ravel Iparraldeko Kontserbatorioko dantzarien presentziak, bestalde, pedagogiaren eta transmisioaren arteko lotura indartzen du.

**Parte-hartzaileak**
Sorkuntza honetan bertsolariak bilduko dira: **Amets Arzallus Antia**, **Joanes Illarregi, Elixabet Etchandi**; kantari gisa, berriz, **Aire Ahizpak**, **Ekhi Lambert**, **Maialen Errotabehere** eta **Pier Pol Berzaitz**, baita Maurice Ravel Iparraldeko Kontserbatorioko **Zabala** moduluko dantzariak ere bai, pedagogiaren eta transmisioaren arteko lotura indartzeko. Beste artista batzuk gehituko dira proiektura : **Mixel Etxekopar**, **Paxkalin Chabagno** eta **Paxkal Indo** txalapartariak, **Ekain Cachenant** txistularia eta Orkestrako musikariak (harpa / hari-laukotea / kontrabaxua).

**Bi kontzertu, erromesaldi bat bezala**
Usaian pilotari eskainia, Baionako Trinketa Modernoak gaur egun beste kultur adierazpide mota batzuetara irekitzeko nahia du. Trinketa Modernoko zuzendaria den Lionel Mazarsen eta Orkestraren erakunde Autonomoko zuzendari nagusia den Edgar Nicouleauren arteko topaketa batek aski izan du lankidetza berri hau sortzeko.
Trinketa ez da beste ikuskizun-areto bat bezalakoa, eta hortxe datza proiektuaren berezitasuna. Beirazko paretekin, kantxarekin eta harmaila ugarirekin, askoz egokiagoa da pilota-praktikarako kultur programaziorako baino. Hala ere, zuzeneko ikuskizunak bere lekua du gune honetan, eta ekitaldirako ezarritako baliabide teknikoek (esperientzia murgilgarri baterako, hainbat iturritatik datorren soinua,) hori berretsiko dute.
Aukera horrek zentzua ere badu: Xalbador trinketetan eta plaza libreetan aritzen zen maiz, eta miresmen handia zion pilotari. « *Pilota, euskal jokoa* » testuak kirol zorrotz gisa ospatzen du pilota, trebezia eta indarra uztartzen dituena. Aldi berean, kultur zutabe gisa ikusten zuen ere, euskal identitatearen eta hizkuntzaren, senidetasunaren eta sustraitzearen bermea.

**Urepele, dena hasi zen lekua**
Bigarren datarako, Orkestrak Urepele hautatu du, Xalbadorren sorterria, bizitza osoa eman zuen lekua, eta herriko etxearen gainean altxatzen den eliza neoklasiko dotorea duena.
Han hasi zen dena, Aldude ibarreko webguneak kontatzen duenez: « Lehen bertsua 16 urterekin kantatu zuen, Urepeleko "Anglesainea" jatetxean. Herritarrak barnean, ahots goran bertsuak kantatzen ari zirela, Fernandok kanpotik behatzen zituen enbeiaz. Isildu zirenean, ezin atxikiz, berak ere bertsu bat bota zuen leihotik. Isiltasuna egin zen orduan gela barnean, bere nagusiei desafioa botatzera ausartzen zen inprobisatzaile gazte ausart haren aurrean. Berehala korrika ihes egin zuen, delitu bat egin izan balu bezala. Bertsu askoren lehena izango zen. »

## KONTZERTUARI BURUZKO INFORMAZIO PRAKTIKOAK

> Ostiralean 27.11.26 › 20:00etan Baionako Trinketa Modernoan
**Prezioak eta sarrerak Baionan, esperientzia murgilgarriarekin:** Prezio betea: 28 € / betea aurresalmentan: 24 € / Murriztua: 20 € / 22 urtetik beherakoak: urririk
> Larunbatean 28.11.26 › 20:00etan Urepeleko elizan
**Prezioak eta sarrerak Urepelen:** Prezio betea : 18 € / Betea aurresalmentan: 14 € / Murriztua: 12 € / 22 urtetik beherakoak: urririk
Iraupena : 1h30, atsedenaldiarekin
**Linean eskuragarri www.ospb.eus webgunean edo telefonoz 05 59 31 21 78**

## ABONAMENDUAK, 28 €-tik aurrera bi kontzerturentzat

Ahalik eta jende gehienak denboraldiko kontzertu guztiak entzuteko parada izan dezan, edo ateraldiak kontatu gabe inprobisatzeko, Orkestrak abonamendu-formula ugari asmatu ditu, prezio onuragarriekin, besteak beste :

**« Moderato » abonamendua** 99€-rentzat (ala 89€-rentzat prezio murriztuan), denboraldia zure gustora osatu : ganbera-musikako 3 kontzerturekin (« Confidences d'orchestre » edo « Fabrique de l'orchestre ») eta hiru kontzertu sinfonikorelin. **Orotara, 6 kontzertuz baliatu** (denboraldiz kanpoko ikuskizuna eta Barbara kenduta)

**« Primo » abonamendua** biziki malgua, Orkestra deskubritzeko « ahogozo » gisako abonamendua da. Formula honek ganbera-musikako kontzertu 1 (« Confidences d'orchestre » edo « Fabrique ») eta kontzertu sinfoniko 1 proposatzen dizkizu. **Orotara 2 kontzertu** (denboraldiz kanpoko ikuskizuna eta Barbara kenduta) aukeratzen ahalko dituzu, 33 €-rentzat prezio osoan eta 28 €-rentzat prezio murriztuan. Formula hau, oparitzeko ezin hobea da. Abididez, Eguberriko kontzertua eta Urteberriko kontzertua proposa daitezke.

## GEHIAGO JAKITEKO

**Informazio guztiak eta sarrerak www.ospb.eus webgunean**
**edo telefonoz 05 59 31 21 78**
Facebook @Orchestre symphonique du Pays Basque orrian –
Iparraldeko Orkestra edo Instagram @Iparraldeko_Orkestra kontua segituz